Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko apirilaren 19a, asteazkena — 74 — Miércoles, a 19 de abril de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## LEZOKO UDALA

*Ordezko Bake-Epailea izendatzeko prozedura hastea.*

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 99tik 103ra bitarteko artikuluetan eta Bake Epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/95 Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Lezoko Udalaren Osoko Bilkurari dagokio udalerri horretako bake-epaile titular eta ordezko epaile izendatzeko pertsonak aukeratzea.

Horiek horrela, Udal Batzarrak 2023ko martxoaren 30an egin zuen bilkuran, besteak beste, zera erabaki zuen:

*Bat:* Lezoko (Gipuzkoa) ordezko bake-epailea hautatzeko prozesu berri bati hasiera ematea, udalbatzak 2023-01-26an egindako osoko bilkuran onartutako baldintzekin.

*Bi:* Hautagaiek bete behar dituzten baldintza nagusienak:

— Adinez nagusia izatea eta 2022ko urtarrilaren 1etik Lezon erroldatua egotea.

— Eskola graduatua edo baliokidea den tituluaren jabe izatea.

— EGA edo baliokidea den tituluaren jabe izatea.

— Botere Judizialeko Lege Organikoko 102 eta 303 artikuluek kargu judizialetako eta Bake Epailen ekainaren 7ko 3/95 Erregelamenduak, aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasun kasuetan barne ez egotea.

*Hiru:* Interesatuek Lezoko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dituzte eskabideak 15 laneguneko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

Interesatuek zinpeko aitorpena aurkeztu beharko dute, deialdi honetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela eta kargua betetzeko ezgaitasun eta bateraezintasun arrazoien bat ez dutela adieraziz.

Era berean, egoki iritzitako merezimenduak aurkeztu ahal izango dira, hala nola, norberaren curriculum vitaea.

*Lau:* Eskabideak aurkeztutako epea amaitu ondoren Udalbatzak bake epaile titularra eta ordezkoa aukeratuko ditu eskaera egin duten pertsonen artean, beti ere legez ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

*Bost:* Lezoko udaleko web orrian deialdi honen berri ematea eta deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Lezo, 2023ko apirilaren 4a.—Jesus M.ª Martiarena Jaca, alkatea. (2580)

## AYUNTAMIENTO DE LEZO

*Inicio del procedimiento para el nombramiento de Juez de Paz sustituta/o.*

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 99 a 103 de la Ley Orgánica del Poder Judicial y el Reglamento 3/95 de 7 de junio de los Jueces de Paz, corresponde al Pleno del Ayuntamiento de Lezo elegir las personas para ser nombradas juez de paz sustituto/a de este municipio.

En su vista, el Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el 30 de marzo de 2023 adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

*Primero:* Dar inicio a un nuevo proceso para la elección del/a Juez de Paz Suplente de Lezo (Gipuzkoa), con los requisitos aprobados por el pleno de la corporación en sesión celebrada el 26/01/2023.

*Segundo:* Los requisitos principales que deberán reunir los/as aspirantes:

— Ser mayor de edad y estar empadronado/a en Lezo desde el 1 de enero de 2022.

— Estar en posesión del título de graduado escolar o equivalente.

— Estar en posesión del título EGA o equivalente.

— No estar incurso/a en ninguna causa de incapacidad o incompatibilidad para cargos judiciales previstos en los artículos 102 y 303 de la ley Orgánica del Poder Judicial y el Reglamento 3/95 de 7 de junio de los Jueces de Paz.

*Tercero:* Las personas interesadas deberán presentar la instancia correspondiente en el Registro General del Ayuntamiento de Lezo en el plazo de 15 días hábiles a partir del día siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Deberán presentar asimismo una declaración jurada en la que se indique que reúnen todos los requisitos requeridos en la presente convocatoria, y que no están incursos en ninguna de las causas de incapacidad e incompatibilidad para desempeñan el cargo.

Asimismo podrán presentar cuantos méritos estimen convenientes aportar, así como el curriculum vitae.

*Cuarto:* Finalizado el periodo de presentación de instancias el Ayuntamiento Pleno elegirá el/la juez de paz titular y sustituta/o de entre aquellas personas que lo hayan solicitado, siempre que cumplan los requisitos legales establecidos.

*Quinto:* Dar cuenta de esta convocatoria en la página web del Ayuntamiento e insertar anuncio del mismo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Lezo, a 4 de abril de 2023.—El alcalde, Jesús M.ª Martiarena Jaca. (2580)

EK\CV GAO-I-2023-02580